

Lehen Hezkuntzako 3. mailako banakako ebaluazioa

2017-2018 ikasturtea

Matematika gaitasuna

BURUZKO KALKULUKO ARIKETA

**Irakaslearendako jarraibideak**

- Giro egokia ezarri, arretatsu eta isilik egon daitezen
- Eskatu ikasleei koadernoan 3. orrian irekitzeko, eta azaldu 1. ariketa egin behar dutela; haren barrenean sei ariketa daude, buruzko kalkulukoak.
- Adierazi kalkuluko ariketa bakoitza bi aldiz irakurriko dela, tartean 5 segundoko eten txiki bat eginda.
- Irakurri bi aldiz ariketa bakoitza, intonazio egokiarekin, behar diren etenak eginez eragiketetan.

<b>A kalkulua</b>	<b>Autobus batean 9 bidaiari doaz. Geltoki batean 6 bidaiari igo dira, eta hurrengoan 8 jaitsi dira. Zenbat bidaiari daude autobusean?</b>
<b>B kalkulua</b>	<b>30 laranja 6 frutaontzitan banatuta daude, kopuru berdinetan. Zenbat laranja egonen da frutaontzi bakoitzean?</b>
<b>C kalkulua</b>	<b>Kutxa batean 60 laranja daude eta beste batean, berriz, 75. Zenbat laranja daude guztira?</b>
<b>D kalkulua</b>	<b><math>83 - 9 =</math> (83 ken 9 berdin ...)</b>
<b>E kalkulua</b>	<b><math>7 \times 6 - 4 =</math> (7 bider 6 ...2 segundoko etenaldia... ken 4 berdin ...)</b>
<b>F kalkulua</b>	<b><math>36 : 9 + 8 =</math> (36 : 9 ...bi segundoko etenaldia... gehi 8 berdin ...)</b>